

# Haurrak, egitura txertatuen jabekuntza eta mintzaide helduen eragina

Andoni Barreña Agirrebeitia  
Salamancako Unibertsitatea

Ikerlan honetan bost haur euskaldunen egitura txertatuen garapena aztertuko da. Horretarako haurrek bi hitzezko esaldiak egiten hasten direnetik aurrerako ekoizpenak behatuko dira. Helburua hirukoitza da: a) batetik, egitura txertatuen garapenaren deskribaketa egitea; b) bestetik, haur guztiek antzeko garapena gauzatzen duten ikustea; c) azkenik, mintzaide helduen eragina nolakoa den zehaztea. Gainera, beste hizkuntzen garapenetan ikusitakoa ere kontuan hartuko da.

This paper will deal with the analysis of subordinate structures in five Basque speaking children, starting with two words utterances. The research will focus on three main points: a) to describe the development of subordinate clauses; b) to observe if the five children proceed in the same way; and c) to determine the role of adult input in the process. We also take into account the data observed in the acquisition of other languages.

Ikerketa honetan<sup>0</sup> gurasoengandik euskara jaso duten haurrek egitura txertatuak nola garatzen dituzten aztertu nahi dugu. Helburua hirukoitza da. Batetik, deskribaketa bera, hots, egitura txertatuen jabekuntzaren azterketa. Bestetik, haur guztiek garapen bera edo antzekoa duten begiztatzea. Azkenik, helduek haurrei erakusten dieten ereduaren garrantzia nolakoa den zehaztea.

Lanaren beraren antolaketa atalka burutu dugu. Lehen atalean, euskarazko egitura txertatuei buruzko azalpena, nolana ere, oinarritzkoena. Bigarren atalean, hipotesien aurkezpena. Hirugarren atalean, arakaturiko korpusen eta erabilitako metodologiaren deskribaketa. Laugarren atalean, datuen aurkezpena azpiataletan sailkatuz: perpaus bakunaren jabekuntza, txertakuntza denboragabearen garapena, txertakuntza denboradunaren garapena eta txertatu ezberdinen garapena. Bosgarren atalean, beste hizkuntzetako txertatuen jabekuntza eta euskararena erakaturik. Seigarren atalean, txertatuen ekoizpenaren ingurua eta helduen eragina. Zazpigarren atalean, azkenik, ondorioak.

## 1. Txertatuen egitura euskaraz

Goenagak (1998) dioenez euskarazko txertatuen deskribaketa bi irizpide jarraiturik egin daiteke: «irizpide formala, adizkiaren formari eta gainerako atzizki eta aurrizkiei begiratzen diena; eta esanahiaren eta funtzioaren arabera egiten den sailkapena».

Irizpide formalaren ildotik jarraiturik, bi txertatu talde nagusi ikus ditzakegu. Batetik, adizki jokatu gabeen gainean eraikitakoak, hots, pertsona markarik eta denbora markarik ez dutenak (1); hauei guk denboragabeak deituko diegu. Bestetik, adizki jokaturen bat dutenak, pertsona zein denbora marka dutenak, alegia (2); hauei guk denboradunak deituko diegu, ordea.

(1) berak badaki [zubia e(g)i-ten] (O, 2;04)<sup>1</sup>  
*aditza-txert.*

(2) baina ez dakit [non da(g)o-en] (O, 2;09)  
*aditza-txert.*

Perpaus txertatuek duten funtzioaren eta esanahiaren arabera, gure inguruko erdaretan gertatzen den legez (frantsesez, espainieraz, katalanez...), egitura txertatuen artean hainbat mota bereiz ditzakegu, hala nola, konpletiboak, erlatiboak, denborazkoak, moduzkoak, kausazkoak, helburuzkoak, baldintzazkoak eta abar.

---

0. Ikerketa hau, neurri batean behintzat, Espainiako MEC-en DGES delakoak PB98-0239 proiektuari eskainitako laguntzari esker egin ahal izan da.

1. Kortxete artean adierazitakoa egitura txertatua da. Parentesi artean adibidearen amaieran jarritakoa haurraren izenaren lehen hizkia eta bere adina (urteak;hileak) dira. Parentesi artean adibidean zehar agertzen diren hizkiak, ordea, haurrak gauzatzen ez dituen hotsak dira. Hizki etzanez agertzen dena egituraren nolakotasunari buruzko zehaztapenak, ordea.

Horiez gain, elkarrizketaren inguruan, euskaraz, hizkuntza askotan bezala, perpausaren atal txertatua bera soilik ekoitz dezakegula aipatzea beharrezkotzat jotzen dugu (3).

- (3) Mintzaide heldua: zertarako da hori?  
[gizonari emo-teko] (O, 2; 05)  
(*aditza-txert.*)

## 2. Hipotesiak

Haurrek beharrezkoa izango dute perpaus bakunaren egitura ezagutzea egitura txertatuak eraikitzen hasi orduko. Hau litzateke gure oinarritzko hipotesia. Horrexegatik uste dugu txertakuntzaren jabekuntza aditz komunztaduraren jabekuntzaren ostean garatuko dela edo azken honen garapena hasita dutelarik behintzat. Ondorio honetara heldu dira, besteak beste, Hernández Pina (1984) eta Aguirre (1995) espainieraren jabekuntza arakatzean eta Aldridge (1986) eta Bloom (1991) ingelesarena aztertzean.

Halere, kontuan hartzen badugu perpaus elkartuaren atal txertatua hutsik ere gauza daitekeela (3), lehenago ere esan dugun legez, txertatu denboragabeak, hots, pertsonarik eta denborarik adierazten ez duten adizki jokaturagabeez eraikitakoak (1), txertatu denboradunak, pertsona eta denbora adierazten duten adizki jokaturagabeez eraikitakoak (2) baino goizago ekoitziko dituzte. Badaiteke, gainera, txertatu denboragabeak aditz komunztadura era emankorrean erabiltzea baino lehen agertzea.

Hauetz gain egitura txertatu ezberdinen agerrera mailakatua ikusiko dugula uste dugu, honela ikusi baitute espainiera lehen hizkuntza bezala ikasi duten haurrengan (Hernández Pina, 1984), katalana eta espainiera aldi berean ikasi duten haurrengan (Aparici, 1997; Aparici & alii, 1996 eta agertzeko) eta ingelesa ikasi dutenengan (Bloom 1991).

Azterturiko haur guztiek ea garapena era berean edo antzekoan gauzatzen duten ere ikusi nahi dugu, gure ustez modu bertsuan gertatuko da eta.

Azkenik, haurren egitura txertatuen erabilera goiztiarra mintzaide helduen aurreko ekoizpenaren eraginagatik ote den ikusi nahi dugu. Arlo honetan, Aparicik, Capdevilak, Serratek eta Serrak (1998, agertzeko) proposatzen dutenaren aurka, gure ustez, elkarrizketaren inguruak ez du eragin zuzenik izango. Bestela esanik, haurrek lehen ekoizpenerako ez dute beharrezkoa izango mintzaide helduen aurretikako ekoizpen bera entzutea.

## 3. Corpora eta metodologia

Lan honetarako aztertuko ditugun datuak jarraipen luzea izan duten haur euskaldunek ekoitzi dituzte. Euskal Herriko eta Hanburgoko Unibertsitateetako HEGEHJ eta BUSDE<sup>2</sup> ikerketa taldeek batera ekinez (Mahlau 94) lau haur

---

2. "Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza" eta "Baskisch und Spanish: Doppelter Erstspracherwerb" (Euskara eta Espainiera: bi lehen hizkuntzen jabekuntza).

bidegrabatu dituzte lau urtetan zehar, 1;06 adinetik 5;06 adina izan arte, gutxi gorabehera (ikus 1. taula). Guk proiektu honetako hiru haurren datuak arakatu ditugu; Peru, Mikel eta Oitzenak, alegia.

Bestalde Euskal Herriko Unibertsitatean buruturiko “Bilingüismo y adquisición del lenguaje: contacto y diferenciación de códigos lingüísticos” ikerketa proiektuan (Zubiri 1997) beste bi haur euskaldunen datuak bildu dira eta gu datu hauetaz ere baliatu gara. Guztira, beraz, bost haurren ekoizpenetan miatu dugu.

HEGEHJ-BUSDE proiektutik haur euskaldun elebakar bat (1;05etik 5;00ra arte) eta bi euskara espainiera elebidun (1;06tik 4;00ra arte eta 1;11tik 4;00ra arte) aztertu ditugu. “Bilingüismo y adquisición del lenguaje: contacto y diferenciación de códigos lingüístico” proiektutik, ostera, bi elebakar (1;03tik 3;00ra arte bata eta 1;06tik 3;00ra arte bestea).

Datu bilketa egitean antzeko metodologia erabili da proiektu bietan. Haurren jarraipen luzea egiteaz gain, grabaketak hamabostero egin dira 30-45 minutu inguruko saioetan haurrak etxekoekin eta lagunekin eguneroko jardueretan eta jolasten ari direla. Grabaketetan haurrez gain gurasoetariko bat eta, lantzean behin, neba-arreba nagusiak agertzen dira. Saioak ez dira inoiz aurretik prestatu; bat-batekoak dira, aitzitik.

Jarraitutako haurrek euskararen hizkera ezberdinak entzun dituzte: bik mendebaleko Durangaldekkoa, beste bik Goizuetako nafarrera eta, azkenik, bosgarren haurrak Baztaneko nafarrera zein estandarra (ikus 1. taula). Euskalki kontuak, nolana ere, ez dira hain argiak, estandarren eragina haur guztiengan nabaria da eta. Bestalde, Peru haurrak etxean nafarrera eta estandarra entzuten baditu ere, ikastolan eta inguruan mendebalekoa ere entzun du, Bizkaian bizi baita.

#### 1. taula: Behaturiko haurrak

Bianditz	Egoitz	Oitz	Peru	Mikel
Bilingüismo y...	Bilingüismo y...	Hegehj	Hegehj	Hegehj
1;06-3;00	1;03-3;00	1;05-5;00	1;11-4;00	1;06-4;00
Elebakarra	Elebakarra	Elebakarra	Elebiduna	Elebiduna
Nafarrera	Nafarrera	Mendebalekoa	Nafarrera eta estandarra	Mendebalekoa

Ikerlan honetan jarri ditugun adibideak, haurrek ekoiztirikoak, haurrek gauzatu dituzten modu berean adierazi ditugu.

## 4. Datuak

### 4.1. Perpaus bakunaren egituraren jabeakuntza

Azpiatal honetan aditz flexioaren arloan garrantzitsuentzat jotzen diren ezaugarrien jabeakuntzaren erak eta uneak banan-banan adieraziko ditugu. Datu

hauek biltzeko Barreñaren (1994a, 1994b eta 1995) (Oitz, Peru eta Mikel haurrenak), Elosegiren (1998) (Perurenak) eta Zubiriren (1997) (Bianditz eta Egoitzenak) lanetara jo dugu. Aztertuko ditugun ezaugarriak eta beraien agerrera uneak hurrez haur 2. taulan ikus daitezke laburturik.

**2. taula:** Aditz flexioaren ezaugarrien garapena

	Bianditz	Egoitz	Oitz	Peru	Mikel
Grabaketen hasiera	1;06	1;03	1;05	1;11	1;06
Lehen adizki jokatuak (era ez emankorrean)	1;06	2;01	2;00	1;11	1;07
Subjektuarekiko komunztadura	2;00	2;05	2;03	2;04-2;05	1;10-1;11
Aspektua	2;01	2;03-2;04	2;03-2;04	2;05	2;00
Zehar osagarriarekiko komunztadura	2;03-2;04	2;09	2;04	2;05	2;04
Aldia (orainaldia/iraganaldia)	2;10	3;00	2;07	2;10	2;10

Perpau bakunaren egituraren garapena urratsez urrats egiten dute haurrek, urrats hauek haur guztiengan oso antzekoak direlarik.

Badirudi aro goiztiarrean haurrek ez dituztela adizki jokatuak ekoizten. Honela, Egoitzek 1;03tik 2;00ra, Oitzek 1;05etik 1;11ra eta Mikelek 1;06ko grabaketan ez dute halakorik erabiltzen. Bianditzek eta Peruk, ostera, grabaketen hasiera-hasieratik erabiltzen dituzte adizki jokatuak. Bianditz, geroago ikusiko dugun legez, oso goiz hasi delako gramatika garatzen, grabaketekin hasi baino lehen, alegia. Peru hurrengo aroaren barruan grabatzen hasi ginelako.

Adizki jokatuak ekoizten hasten direnean, Bianditz 1;06 adinaz, Egoitz 2;01 adinaz, Oitz 2;00 adinaz, Peru 1;11 adinaz eta Mikel 1;07 adinaz, gauzatzen dituzten adizki jokatu bakarrak singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak dira, *izan* eta *egon* aditzen *da* eta *dago* adizkiak bezalakoak, hain zuzen. Aro honetako fenomenorik azpimarragarriena zera da: adizki hauek, batzuetan, noski, subjektu lexikoa hirugarren pertsona ez denean ere erabiltzen dituztela (4-6). Horrexegatik uste dugu une honetan, adizki jokatuak ekoizti arren, oraindik ez dutela aditz komunztadura era emankorrean erabiltzen, hots, ez direla subjektuarekiko aditz komunztaduraren ezaugarriaz jabetu.

(4) ni(k) ni(k) ni(k) ez deka(t) kertsie (O, 2;02)

(5) (behiak) han da(g)o(z) (M, 1;07)<sup>3</sup>

(6) (nik) ez daki(t) (P, 2;02)

3. Adibide honetan Mikel eta bere mintzaidea leihotik ikusten dituzten behiei buruz ari dira. Lehenago ere esan dugun legez, parentesi artekoak haurrak ekoizti ez dituenak dira.

Hurrengo urratsean haurrek lehen pertsonari eta hirugarren pertsonari dagozkien adizkiak zuzen erabiltzen hasten dira. Urrats hau Bianditzek 2;00 adinaz egiten du, Egoitzek 2;05 adinaz, Oitzek 2;03 adinaz, Peruk 2;05 adinaz eta Mikelek 1;11 adinaz (7-9). Oso laster, gehienetan une berean edo hurrengo hilabetean, singularreko bigarren pertsonari eta pluraleko lehenengoari zein hirugarrenari dagozkien adizkiak agertzen dira. Badirudi gai direla subjektuarekiko aditz komunztadura zuzen erabiltzeko, beraz. Gainera, aditza iragangaitza zein iragankorra izanik ere, une bertsuan agertzen dira dagozkien adizkiak, lehenengoetan komunztadura aurrizkien bidez eta bigarrenetan atzizkien bidez egiten dutelarik, ohi den bezala.

- (7) ni naiz Egoitz (E, 2;05; Zubiri 1997)
- (8) badakit (O, 2;03)
- (9) jan dut (P, 2;05)

Aditzak adierazten duen aspektuaren jabekuntza subjektuarekiko komunztaduraren agerreraren inguruan ikus dezakegu, une berean, edo zerbait lehentxoago edo gerotxoago (ikus 2. taula). Aspektuaren jabekuntzaz hitz egiteko, lehenago aditz komunztadurarekin egin dugun legez, erabilera kontrajarriak ekoitzi arte ez dugu baieztatu. Horrela, haurrek lehenago aspektu burutudun formak erabili arren, aspektu burutugabedun edo gertakizundun formak gauzatu arte ez dira, gure ustez, aspektuaren ezaugarriaz jabetu (10-12).

- (10) hemen jausiko da (P, 2;05)
- (11) ez da kausten (O, 2;04)
- (12) Mikel erori (eg)itxen (d)a (B, 2;01; Zubiri 1997)

Zehar osagarriarekiko komunztadura da haurrek erabiltzen duten hurrengo ezaugarria (ikus 2. taula). Adizki kontrajarrien erabilerari begiratzen badiogu, argi dago osagarri zuzenaren arloan oraindik singularreko hirugarren pertsonari dagozkion formak baino ez dituztela ekoitzen (*dakit, dauka, duzu...*). Zehar osagarriaren arloan, ostera, nabaria da jabekuntza (13-15), adizki iragankorretan zein iragangaitzetan. Gainera, gure datuetan zehar osagarriarekiko komunztadura osagarri zuzenarekikoa baino goizago ikus dezakegu bost haurrengan.

- (13) garajie e(g)ingo (d)otza(g)u (O, 2;04)
- (14) nun ipiniko (do)tzet? (M, 2;04)
- (15) hola bo(ta)tzen diot Ibairi (B, 2;09; Zubiri 1997)

Iraganaldiko adizkiak, orainaldikoekin kontrajartzean, aldiaren jabekuntza adieraziko dutenak, beluago agertzen dira haur guztiengan (16-18).

- (16) Egoitek hautxi xun (E, 2;07; Zubiri 1997)
- (17) otso bat etorri zan eta jan e(g)in zuen (O, 2;07)
- (18) egun baten apurtu eban (M, 2;10)

Osagarri zuzenarekiko komuntadura erakusten duten adizkien agerrera, aitzitik, zailagoa da bateratzeko haur guztiengan. Guztiengan agertzen da zehar osagarriarekikoa baino beranduago, baina batzuegan iraganaldiko adizkiak erabiltzen hasi baino lehen ikus dezakegu. Edozelan ere, badirudi haurrak singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonen dagozkien adizkiak (*dut/ditut, diot/dizkiot...*) baino ez dituztela erabiltzen arlo honetan, aldi luze batean behintzat.

#### 4.2. Perpaus jokatu gabeetako egitura txertatuen garapena

Guk aztertu ditugun datuen arabera haur guztiak ekoizti dituzte goizago perpaus denboragabeetako egitura txertatuak denboradunetakoak baino, hots, lehenago erabiltzen dituzte adizki jokatu gabeen erantsitako txertagailuak (txertakuntza adierazten duten atzizkiak/aurrizkiak) adizki jokatu e erantsitakoak baino (19-23). Baieztapen honekin adierazi nahi duguna zera da, motaren lehen-tasuna; inola ere ez mota horretako aldaera guztien erabilera denboradunetakoak agertu baino lehen.

- (19) Mintzaidea: be(g)itu zelan e(g)iten daben dantzan!  
[zapatak kendu-ta] (O, 2;00)
- (20) [zaldia lolo e(g)i-tten] (E, 2;03; Zubiri 1997)
- (21) [pixa (eg)i-tteko] ra a(r)bola (B, 2;01; Zubiri 1997)
- (22) [apu(r)tu-te] da(g)o (M, 2;02)
- (23) [lolo (eg)i-teko] (P, 2;05)

Adizki jokatu gabeen erantsitako txertagailuez eraikitako egitura txertatuen agerrera subjektuarekiko komuntadura era emankorrean erabiltzen hasi baino lehen ikus dezakegu haur gehienengan, baina ez guztiengan (ikus 3. taula). Mikelengan nabaria da subjektuarekiko komuntadura hiruzpalau hilabete lehenago agertzen dela, ordea.

Oitz, Peru eta Mikel haurren bildu ditugun lehen adibideak, *-ta* moduzko (Goenaga 1998) txertagailuaz eraikitakoak dira. Bianditz eta Egoitzengan, ostera, *-t(z)en* txertagailu konpletiboa da ikusi dugun lehena.

### 3. taula: Adizki jokatu gabeei erantsitako txertagailuen agerrera<sup>4</sup>

	Bianditz	Egoitz	Oitz	Peru	Mikel
subjektuarekiko komunztadura	2;00	2;05	2;03	2;04-2;05	1;10-1;11
-ta (moduzkoa)	2;06	2;05	2;00	2;03	2;02
-t(z)en (konpletiboa)	1;09	2;03	2;03	2;05	2;03
-t(z)eko (helburuzkoa)	2;01	2;03	2;04	2;05	2;08
-t(z)era (helburuzkoa)	1;09	2;04	4;10		
-t(z)ea (subjektua/osagarria)		2;04	2;06		2;03

Oro har, Oitz, Peru eta Mikel hurrek *-ta* moduzkoa, *-t(z)en* konpletiboa eta *-t(z)eko* helburuzkoa dira erabiltzen dituzten lehenetariko txertagailuak. Egoitzek eta Bianditzek, berriz, *-t(z)en* konpletiboa eta *-t(z)eko* eta *-t(z)era* helburuzkoak ekoizten dituzte lehenago. Zalantzarik gabe, gure ustez, aukera hau hurrek entzuten duten euskararen arabera da, jakina baita nafarreraz *-ta* atzikiaren erabilera murriztagoa dela. Beste horrenbeste esan dezakegu *-t(z)era* txertagailuaz mendebaldeko hizkeretan eta horixe izango litzateke mendebaldeko haur batengan hain berandu, 4;10 adina duenean hain zuzen, agertzearen arrazoia.

Beste kontu bat *-ta* txertagailuaz gauzaturikoen txertagarritasuna da. Gramatika metodoetan moduzko txertatuzat jo arren, zalantzarik irudi dakiok bati baino gehiagori halakoaz gauzaturiko adibideen txertagarritasuna hauren hasierako adibideetan. Kontua da hurrek *apurtuta*, *ipinita*, *kenduta* bezalako ekoizpenak egiten dituztela, gehienetan hitz bakarrekoak gainera. Baliteke, beraz, erabilera lexiko hutsa izatea, edo, nolabait esanik, adjektibo gisa ulertzea. Alabaina, (19) adibidean ikus dezakegun bezala, batzuetan gai dira egitura txertatuetan erabiltzeko, osagarriaren ekoizpenak (*zapatak*) adierazten digun legez.

Edonola ere, azpimarragarria da Oitz eta Peru hurrek *-ta* txertagailuaz buruturiko adibideak baino ez dituztela gauzatzen subjektuarekiko komunztaduraz jabetu aurretik. Bianditz eta Egoitz hurrengan, ostera, aldaera ugariago ikus dezakegu aro goiztiarrean.

#### 4.3. Perpaus jokatu etako egitura txertatuen garapena

Aztertu ditugun haur guztiengan adizki jokatu ei erantsitako txertagailuez eraikitako egiturak adizki jokatu gabeei erantsitako txertagailuez eraikitakoak baino geroago aurkitu ditugu. Beste horrenbeste esan dezakegu subjektuarekiko komunztaduraren erabilerarekin erkatzen baditugu (ikus 4. taula).

4. Halako adibiderik ez dugula aurkitu adierazten dute hutsik agertzen diren laukitxoek.



4. taula: Adizki jokatupei erantsitako txertagailuen agerrera

	Bianditz	Egoitz	Oitz	Peru	Mikel
subjektuarekiko komunztadura	2;00	2;05	2;03	2;04-2;05	1;10-1;11
eta / bait- (kausazkoak)	2;04	2;07	2;04	2;07	2;11
-ela (konpletiboa)	2;05	2;06	2;04	2;09	2;04
-(e)n (zehargaldera)	2;05	2;08	2;05	2;07	2;09
ze (kausazkoa)			2;05	2;07	2;03
-(e)lako (kausazkoa)	2;11		2;06	3;02	2;11
-(e)na (subjektua/osagarria)		2;10	2;06	2;11	2;10
-(e)nean (denborazkoa)	2;06	2;11	2;09	3;02	
-(e)n (erlatiboa)			2;11	3;05	3;00

Haur guztiak hasten dira kausazkoak eta konpletiboak ekoitziz (24-28). Bianditzek lehenengo kausazko egitura darabil (*bait-*, 2;04) eta hilabete beranduago konpletiboa *-(e)la*, 2;05); Egoitzek goizago darabil konpletiboa *-(e)la* 2;06) kausazkoa baino (*bait-*, 2;07); Oitzek une berean darabiltza egitura biak (2;04); Peruk hil bi lehenago kausazkoa (*eta*, 2;07) konpletiboa baino *-(e)la*, 2;09); Mikelek hilabete lehenago kausazkoa (*ze*, 2;03) konpletiboa baino *-(e)la*, 2;04).

- (24) [behar du eta] (P, 2;07)
- (25) itxi egin behar dut hau [erori egiten bait-a] (B, 2;04)
- (26) [ze e(g)iten na(g)o buztena] (M, 2;03)
- (27) [aterea dago-ela] (E, 2;06)
- (28) [hori zurie izen da-la] (O, 2;04)

Nolanahi ere, *-(e)n* txertagailuaz eraikitako zehargalderak ere haur gehienengan une bertsuan agertzen dira, hil bat edo biren tartean: 2;05 adinaz Bianditz eta Oitzengan, 2;07 adinaz Perurengan eta 2;08 adinaz Egoitzengan (29-32). Mikelengan, ostera, txertagailu hau kausazko *ze* txertagailua baino bost hilabete beluago ikus dezakegu (33). Edozelan ere, nabaria da haur honek halako txertagailua eskatzen duten egiturak goizago ekoizten dituela, baina txertagailurik gabe (34).

- (29) (begi)tu [nun di(r)a-n] (B, 2;05)
- (30) be(g)ittu [behien zer dekot-en nik!] (O, 2;05)
- (31) ikusi [nola e(g)in du-n punbala!] (P, 2;07)
- (32) hara [xe(r) du-n!] (E, 2;08; Zubiri 1997)
- (33) be(g)ittu [zelan e(g)in dabe-n Itsasok!] (M, 2;09)
- (34) be(g)ittu [zelan doie(n)!] (M, 2;02)

Mikelek 2;02tik aurrera grabaketa guztietan gauzatzen du zehargalderaren bat, baina 2;09ko aurrekoetan ez du behin ere -(e)n txertagailurik ekoizten. Hasieran haur guztiek dute antzeko jokabidea, -(e)n txertagailuaren ekoizpen eza, alegia; baina ekoizpen eza hasierako hilabete batean edo bitan baino ez dugu aurkitu beste haurren (35-36).

(35) be(g)itu [ze(r) alaloo da(n) hau!] (P, 2;07)

(36) [zelan mobitzen da(n)] be(g)ittu! (O, 2;05)

Adibide askotan ikus dezakegun legez, haurrek ekoizten dituzten lehen egitura txertatuak beregain gauzatzen dituzte, hots, ez da perpausaren atal nagusia agertzen. Jokabide hau elkarrizketaren inguruan guztiz arrunta da haurren zein helduengan. Perpaus elkartu osoak, aldiz, goiz agertzen dira, sarritan zehargalderen inguruan (37). Halere, beste motatakoetan ere aurki ditza-kegu (25).

(37) ez daki [zer da-n] (O, 2;07)

#### 4.4. Txertatu ezberdinen garapena

Perpaus txertatu guztien garapen zehatza deskribatzea luzeegia izango litzatekeenez, azpialt honetan haurren ekoizpenetan goizen eta sarrien agertzen diren motatara mugatuko gara. Mota ezberdinak haur guztiengan zein txertagailuz eta noiz agertzen diren erakusteko 5. taula osatu dugu.

5. taula: Txertakuntza mota ezberdinen agerrera

	Bianditz	Egoitz	Oitz	Peru	Mikel
Moduzkoa -ta	2;06	2;05	2;00	2;03	2;02
Konpletiboa -t(z)en	1;09	2;03	2;02	2;05	2;03
Helburuzkoak -t(z)eko, -t(z)era	1;09	2;03	2;03	2;05	2;08
Konpletiboa -(e)la	2;05	2;06	2;04	2;09	2;04
Kausazkoak eta, bait-, -(e)lako	2;04	2;07	2;04	2;07	2;11
Kausazkoa ze	-	-	2;04	2;07	2;03
Zehargaldera. -(e)n	2;05	2;08	2;05	2;07	(2;03) 2;09
Subjektua/Osagarria -(e)na/k, -t(z)ea/k	-	2;10	2;05	3;02	2;10
Denborazkoa -(e)nean	2;06	2;11	2;09	3;02	
Baldintza erreala ba-	2;06		2;10	3;03	3;01
Helburuzkoa (subjunktiboa)	-	-	2;10	-	-
Erlatiboa -(e)n	-	-	2;11	3;05	3;00

Deskribapen orokorra eta laburtua egitean ondoko zehaztasunak aipatuko genituzke:

1. Agertzen diren lehen egitura txertatuak *-ta* atzizkiak buruturiko moduzkoak dira. Adizki jokatuagabeez eraikitakoak dira eta haur batzuegan subjektuarekiko aditz komuntadura agertu baino lehen ikus ditzakegu. Bianditz eta Egoitz haurren ekoizpenetan beluago eta urriago aurkitzea, entzuten duten euskararen aldaeratik izan daiteke.

2. Ondoren haurrek *-t(z)en* txertagailuz eraikitako konpletiboak, osagariaren funtzioa betetzen dutenak, eta *-t(z)eko* zein *-t(z)era* txertagailuz osaturiko helburuzkoak darabiltzate. Guztiak ikus ditzakegu adizki jokatuagabeei erantsita.

3. Apur bat beluago adizki jokatuerei erantsitako txertagailudun egiturak ikus ditzakegu: kausazkoak (*eta*, *bait-*, *ze*, *-(e)lako*), *konpletiboak* (*-(e)la*), subjektu zein osagarri funtzioa betetzen dutenak, eta *zehargalderak* (*-(e)n*). Lehenago ere esan dugun legez, Mikel haurrek multzo honetakoak aurrekoak bezain goiz ekoizten ditu.

Konpletiboak egiteko *-(e)la* txertagailua darabilte. Geroago *-(e)na* txertagailua ere erabiliko dute. Oitz haurra da bigarren txertagailu hau *-(e)la* bezain goiz darabilen bakarra.

Kausazkoak burutzeko hautatzen duten txertagailuaren kontua konplexuagoa da. Peru elebidunak eta Oitz elebakarrak *eta* eta *-(e)lako* atzizkiak aukeratzen dituzte, lantzean behin *ze* partikula ere (perpaus txertatuaren hasieran jartzen den txertagailu askea) erabiltzen duten arren. Hirurak aldi berean agertzen dira haur biengan. Egoitz eta Bianditz elebakar nafarrek *bait-* eta *-(e)lako* darabiltzate. Ez dugu behin ere *ze* partikularik ikusi beren ekoizpenetan. Mikel elebidunak, ostera, bide berezia egiten duela dirudi: 2;03tik 2;10era bitartean *ze* eta *zergatik* (38) partikulak baino ez darabiltza eta, perpaus txertatuaren hasieran, noski. *Ze* partikularen erabilera arrunta da mendebaleko hizkeretan, baina ez da arrunta *zergatik* halako inguruetan erabiltzea.

(38) [ze(rg)aiti(k) lolo e(g)in bi dau] (M, 2;04)

Badirudi, edo horrela iruditzen zaigu guri behinik behin, Mikel elebidunak espainieratik gertuen dagoen egitura aukeratu duela kausazkoak egiteko 2;03tik 2;10era bitarteko aldian. Kausazko txertagailu askea euskaraz zein espainieraz entzuten du eta egitura hori da erabiltzen duen lehena hizkuntza bietan (Barreña 1999). Berria dena bere ekoizpenean *zergatik* hitza funtzio horretan erabiltzea da.

Zehargalderetan ere badira ezberdintasunak haurren ekoizpenetan. Jakina da euskarak txertagailua eskatzen duela egitura hauetan, *-(e)n*, alegia, eta espainierak, frantsesak edo ingelesak, aldiz, ez dutela halakorik eskatzen. Txertagailu honen garapenean ondoko urratsak ikusi ditugu haurrengan: a) egitura hauen erabileraren hasieran haur guztiek ekoizten dituzte txertagailudun zein txertagailugabeko adibideak; b) bizpahiru hilabeteren buruan txertagailuaren

ekoizpena egokia da hurrengan % 90 aldiz. Mikel da arlo honetan ezberdin jokatzeko duena, zeren 2;03tik 2;08ra bitartean, 11 adibide ekoizten dituen arren, behin ere ez baitarabil txertagailurik. Ondoren, 2;09tik aurrera Mikelek beste hurrek jarraitu duten bidea egingo du.

4. Geroago osagarriaren edo subjektuaren funtzioa betetzen duten konpletiboak *-(e)na* eta *-(e)nak* eta denborazkoak *-(e)nean* agertzen dira.

Orain arte konpletibo mota ezberdinak ikusi ditugu, *-(z)en* eta *-(e)la*, eta orain *-(e)na* eta *-(z)ea*. Argi dago euskaraz txertagailu hauek funtzio gehiago ere izan dezaketela, baina ez dugu halakorik aurkitu.

Euskaraz, beste hizkuntza askotan gertatzen den moduan, denborazko txertatuen artean mota ugariak dira. Guk une honetan ikusi ditugun bakarrak *-(e)nean* txertagailuaz gauzatutakoak dira, eta ez haur guztiengan. Gainera, denborazkoek izaten dituzten ñabardurak adierazteko ez dira gai hain une goiztiarrean. Gainerako denborazko perpausak ondoren erabiliko dituzte. Horrela, esate baterako, Oitzek (kontuan izan haur honen korpusa 5;00 adinera arte aztertu dugula) *-enean* 2;09 adina izan duenean darabil lehen aldiz, *arte* 3;02 adinaz, *eta gero* 4;03 adinaz, *-tzerakoan* 4;06 adinaz, *-enerako* 4;08 adinaz eta, azkenik, *baino lehenago* 4;11 adinaz.

5. Baldintza erreala adierazten duten perpaus txertatuak ikus ditzakegu ondoren. Halakoetan txertagailua *ba-* aurrizkia izaten da eta hurrek eragozpen barik darabiltela esan dezakegu.

Baldintza irreala, ostera, beluago agertzen da hurrengan. Guk Oitzen korpusan baino ez dugu halakorik ikusi, hurrek 4;06 adina duenean (Barreña 1994).

6. Erlatiboak dira hurrengoak (39). Egitura hau hurrek hiru urte egiten dituztenean agertzen dela dirudi, eta horregatik, hainbaten, ez dugu halakorik bildu Egoitzen eta Bianditzen ekoizpenetan.

(39) [umiek e(g)iten dabiez-en] okerkeriek (O, 2;11)

Erlatiboaren erabilerari buruz ohartxo bi adierazi nahi ditugu. Batetik, haur guztiek erabiltzen dutela lehenago erlatibo substantibatuen egitura *-(e)na*, erlatiboarena baino. 5. taulan ikus dezakegu fenomeno hau, non *-(e)na* txertagailuaz egindakoak subjektu/osagarritzat jo ditugun. Bestetik, erlatiboaren erabileraren hasieran hurrenkerarekin hurrek arazoak dituztela.

7. Hurrek erabiltzen dituzten egitura txertatuak ugariak diren arren, ez dugu behin ere kontzesiborik edo kontsekutiborik ikusi.

#### 4.5. Txertatuen agerrera hurrenkerak hizkuntzetan zehar

Aparici eta besteren (1996, agertzeko) ikerlanean, non espainiera eta katalana garatu duten 10 hurren ekoizpenak aztertzen diren, egileek egitura txertatuen garapenean bi urrats ikusi dituzte. Lehen urratsean, 28 eta 33 hilabeteen tartean, hurrek kausazkoak, helburuzkoak, erlatiboak eta osagarriaren

funtzioa adierazten duten konpletiboak gauzatzen dituzte. Bigarren urratsean, 34 hilabeteren inguruan, moduzkoak, baldintzazkoak eta denborazkoak ekoizten dituzte, ordea.

Hernández Pinak (1984) ere egitura txertatuen garapenean bi urrats bereizten ditu haur elebakar espainiar baten garapena arakaturik. Ikerlari honen arabera, lehen urratsean, 30 hilabete izan aurretik, haurrak kausazkoak, helburuzkoak, baldintzazkoak eta osagarriaren funtzioa adierazten duten konpletiboak erabili ditu. Bigarren urratsean, 30 hilabete izan ondoren, denborazkoak, moduzkoak eta konparaziozkoak gauzatu ditu.

Ikerketa bietan egitura txertatuen antzeko garapena ikusi dute espainieraz zein katalanez, beraz. Edonola ere, badira ezberdintasunak. Esaterako, Aparici eta besteen arabera, haurrek baldintzazkoak bigarren urratsean garatzen dituzte. Hernández Pinaren datuetan, ostera, baldintzazkoak lehen urratsean gauzatzen dituztela ikus dezakegu.

Gure datuen arabera, euskarazko egitura txertatuen garapenean bi urrats bereiziko bagenitu, mugatzat 30 hilabeteak harturik, ezberdintasunak leudeke euskarazkoen garapenenaren eta katalanezkoen eta espainierazkoen garapenen artean, urratsetan agertzen diren motak ez baitatoz bat.

Lehen urratsean, 30 hilabete izan aurretik, euskaraz, espainieraz eta katalanez bezala, kausazkoak, helburuzkoak eta osagarriaren funtzioa adierazten duten konpletiboak ikus ditzakegu. Alabaina, euskaldunek moduzkoak eta zehargalderak ere gauzatzen dituzte. Erlatiborik, ordea, ez dugu ikusi.

Bigarren urratsean, euskaldunek, espainiarrek eta katalanek bezala, denborazkoak eta baldintzazkoak ekoizten dituzte. Urrats honetan, erlatiboak ere agertzen dira lehen aldiz.

Oro har, aurkitu ditugun ezberdintasunak honela bil ditzakegu. Batetik, euskaldunek moduzkoak goizago gauzatzen dituztela. Bestetik, erlatiboak beluago erabiltzen dituztela. Hauxez gain, zera ere aipatu behar dugu, euskaldunek goiz ekoizten dituzten zehargalderak espainiar eta katalandar ikerlariak ez dituztela kontuan izan, agian, mota honetakoak osagarriaren funtzioa dutenen arteak sartu dituztelako. Gogoan izan zehargalderek egitura nabarmena dutela euskaraz, baina ez hizkuntza erromanikoetan.

Hala eta guztiz ere, orokortasunak kontuan izanik, argi dago egitura txertatuen garapena oso antzekoa dela hizkuntza bietan. Igarri ditugun ezberdintasunak, bestalde, hizkuntzek dituzten egitura berezien arabera uler daitezke.

#### **4.6. Egitura txertatua eta elkarrizketako ingurua**

Egitura txertatuen agerrera mintzaide helduen eragin zuzenaren ondorioa izaten dela onartzen den arren (Aparici eta beste 1998, agertzeko), gure ustez, araketan zehar ikusi ditugun zenbait daturen arabera ez da horrela gertatzen. Edo, bestela esanda, horrela ez dela uste ahal izateko arrazoiak bildu ditugula iruditzen zaigu.

Hizkuntzalari guztiok, edozein eskolatakoak izanik, haurrek garatuko duten hizkuntza entzutea beharrezkoa dutela uste dugu. Ez du inork inoiz esan, guk dakigunaren arabera, entzun ez duten hizkuntza gara dezaketenik. Alabaina, hizkuntzalari gehienok, guztiok ez esatearren, haurrek inoiz entzun ez dituzten egiturak sortzeko ahalmena dutela ere badiogu.

Gauza jakina eta nabarmena da, bestalde, haurrek mintzaide helduekin eta beste haurrekin hitz eginez eta komunikatuz garatzen dutela hizkuntza eta komunikazio goiztiar hau gehienetan elkarriketaren bidez gertatzen dela.

Guk adierazi nahi duguna bestelakoa da, ordea. Ez dugu uste hizkuntzaren garapena eta egitura txertatuena, ikerlan honetako kontura mugatuz, mintzaideek esandakoari erantzunez sortu behar dutela haurrek nahitaez. Ez dugu uste mintzaide helduek haurrei luzatutako galderen bidez berauek erantzunean erabili behar duten egitura zuzena eskaintzen diotenik. Ez nahitaez, behintzat.

Uste horren jatorria espainieraren eta hizkuntza erromanikoen egituren behaketari zor zaio, gure irudiko behinik behin. Egia baita espainieraz, esaterako, hainbat eta hainbat egitura txertatutako galderen antzeko egitura dutela (40-42). Galderetan ikus dezakegun hurrenkera (izenordain galdetzailea - aditza) eta berauen erantzunetan ikus dezakegun egitura txertatuena (txertagailu askea - aditza) oso antzekoak dira sarritan. Areago, kontuan hartzen badugu izenordain galdetzailea eta txertagailu askea bat datozela, formaren aldetik behinik behin.

- (40) ¿qué has dicho? (*izenordain galdetzailea - aditza*)  
que te calles (*txertagailu askea - aditza*)
- (41) ¿por qué no has venido? (*izenordain galdetzailea - ezeztapena - aditza*)  
porque no quiero (*txertagailu askea - ezeztapena - aditza*)
- (42) ¿cómo has hecho esto? (*izenordain galdetzailea - aditza*)  
como he querido (*txertagailu askea - aditza*)

Euskaraz, ostera, gauzak ez dira horrela. Batetik, izenordain galdetzailea eta txertagailu askea ez datoz bat. Bestetik, hurrenkera ere ez da bera (40b-42b). Ezin dio eman, bada, mintzaide helduak zuzeneko adibidea haurrari.

- (40b) zer esan duzu? (*izenordain galdetzailea - aditza*)  
isil-tzeko/ isil zaitez-ela (*aditza - txertagailua*)
- (41b) zergatik ez zara etorri? (*izenordain galdetzailea - ezeztapena - aditza*)  
ez duda-lako nahi (*ezeztapena- aditza - txertagailua - aditza*)
- (42b) zelan egin duzu hori? (*izenordain galdetzailea - aditza*)  
nahi izan duda-n bezala (*aditza - txertagailua*)

Esan nahi duguna zera da: aurretik mintzaide helduaren galderaren egituraren bidez haurrari eskainitakoa ezin dela egitura txertatuaren eredutzat hartu.

Galderek ez diote biderik aurkezten haurrari. Haurrek, aldiz, galderei zein egitura erabilirik erantzun behar dieten jakin behar dute.

Gainera, sarritan, haurrek egitura txertatuak ekoitzirik erantzuten duten arren, ez da hori aukera bakarra (43).

- (43) Mintzaidea: zein da submarinue? (ipuin baten aurrean)  
ur azpitik ibiltten dan barkue (O, 3;04)

Erantzun egin dio haurrak mintzaide helduari, baina ez egindako galderari. Nahikoa litzateke, galderari erantzuteko "hauxe" esatea. Halere, haurrak egitura txertatua gauzatu du.

Kontu hau aztertzeko, Oitz haur elebakarrak 2;04 adina duenean, hots, egitura txertatuak erabiltzen hasten denean, ekoizten dituen egitura txertatu guztiak arakatu ditugu (44-51). Grabaketa berekoak dira adibide guztiak. Oitz bere amarekin eta Mikelekin egur zatiekin, gomazko abereekin eta kotxeekin jolasten ari da.

- (44) Oitz: garajie e(g)ingo (do)tze(g)u  
Mintzaidea: be(g)itu!, be(g)itu!, ipintzen!  
Oitz: be(g)itu hemen, hemen, hemen, txikie da eta! (O, 2;04)

- (45) Mintzaidea: zergatik da(g)oz horrek goien?  
Oitz: ez da kabitzen  
Mintzaidea: ez da kabitzen?, nun ez da kabitzen?  
Oitz: ze hemen kendute, apurtute dana (O, 2;04)

- (46) Mintzaidea: zelako parrastada!  
Oitz: hau jausi da  
Mintzaidea: ia zer e(g)ingo dogun; zer e(g)ingo dogu?  
Oitz: (ez da ulertzen )  
Mintzaidea: e?  
Oitz: bakarrik egon dala! (O, 2;04)

- (47) Oitz: zer da hori baina?  
Mintzaidea: zuk ataratzen dozun zarata  
Oitz: ta-ta-ta-ta!; nora zuez?; ba, ni be bai; ie!, kotxie itxi eta guezan!; brunnn!; ekarri kotxie!; liburuek erueten; liburue; liburuen bila; guezan, ze bestela kenduko (do)zku (O, 2;04)

- (48) Mintzaidea: honek be bai?  
Oitz: bai  
Mintzaidea: hartu, Mikel!  
Oitz: po-pot!, banue erueten kamioie (O, 2;04)

- (49) Mintzaidea: itzi hor beste pilotxo bat  
Oitz: nik!  
Mikel: itxi jata  
Oitz: itxita da(g)o (O, 2;04)

- (50) Mintzaidea: Mikeli esan ia botako dozun; ea, Mikeli galdetu  
Oitz: ez!, nik badakit botatzen! (O, 2;04)
- (51) Mintzaidea: hor zer da(g)o?  
Oitz: zalditxue  
Mintzaidea: txerritxuek?  
Oitz: ez, zaldie  
Mintzaidea: a!, zaldie  
Oitz: hartu!, hori nirie izen dala!

Ingelesaren garapenean Bloom eta beste (1980) eta Bloom (1991) ikerlariak ikusi zuten bezala, euskaraz ere ez dirudi hurrek helduen eragin zuzena behar dutenik. Horrela esan daiteke Oitzen adibideak ikusita behinik behin. Haur honek ekoitziriko zortzi adibideetatik bat bakarrizketa baten barruan gauzatu du (47) eta gainera zazpiak elkarrizketaren inguruan. Halere, hiru adibidetan (45, 46 eta 50) baino ez dio mintzaide helduak aurretiaz galdetu. Gainera, (45) adibidean *non?* galdetu dio jolaskideak eta haurrak kausazkoa burutu, *zergatik?* galderari erantzun dio; (46) adibidean *e?* esan du mintzaideak, eta konpletiboa gauzatu du haurrak; (50) adibidean helduak beste haurrari galdetzeko agindu dio eta haurrak konpletiboa ekoitzi du. Beste adibideetan haurrak hitz egin du, baina aurretik galderarik egin ez zaiolarik. Guk arakaturiko adibideetan behin ere ez dio jolaskide helduak edo beste haurrak, galderaren bidez edo aurretik esandakoaren bidez, txertatua ekoizteko eredurik eskaini.

## 5. Ondorioak

Batetik, bost hurrengan adizki jokatu ez erakitako egitura txertatuak perpaus bakunaren jabeakuntzaren ondoren gertatzen dela ikusi ahal izan dugu. Nolanahi ere, adizki jokatu gabeez erakitako egitura txertatuak goizago ekoizten dituzte; aztertutako bost hurretatik lauk, behintzat.

Bestetik, txertatu mota ezberdinen agerrera mailakatua aurkitu dugu. Hizkuntzetan zehar aurkitu ditugun agerrera hurrenkerak erkaturik, egitura txertatuen agerrera hurrenkera hizkuntza bakoitzaren berezitasunaren arabera dela esan daiteke. Txertatuek adierazten dituzten funtzioak garrantzitsuak dira, baina ez dirudi agerrera hurrenkeraren ardatzak direnik. Aurkitutako hurrenkerak antzekoak dira espainieraz, katalanez eta euskaraz, baina salbuespenak, euskaraz *moduzkoak* goizago agertzea eta *erlatiboak* beluago, gure ustez, euskararen egitura bereziaren zioz gertatzen dira.

Gainera, kontuan hartzen badugu *-ta* txertagailuaren bidez gauzaturiko moduzkoen txertagarritasuna zalantzagarrria izan daitekeela eta erlatibo substantibatuek (*-ena*) goizago darabiltzatela, hurbilago leudeke agerrera hurrenkerak.

Azkenik, nabaria da, guretzat bederen, egitura txertatuen ekoizpenean helduen eragin zuzenik ez dugula igarri. Inork ez du hizkuntza entzutearen beharra ukatzen. Azpimarratu nahi duguna zera da: hurrek galde-erantzunetan egitura txertatuak erabiltzeko, jabeturik izan behar dituztela egitura txertatuak, galderen egiturak oso gutxi laguntzen dietelarik.



Gainera, kontuan izanik egitura txertatuak hain egitura berezi eta ezberdineko hizkuntzetan, hain hurrenkera antzekoan eta hain garai bertsuan agertzen direla, badirudi haurrek entzuten duten inputa, hots, helduen eragina baino zerbait gehiago behar dutela. Eta hori, noski, burmuinean dagoen zerbait izan behar da, hizkuntza era berezian garatzea bideratzen duen ahalmena, alegia.

## Bibliografia

- Aguirre, C. (1995): *La adquisición de las categorías gramaticales del español*, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, doktorego tesia.
- Aldridge, M. (1986): "A first stage in the acquisition of INFL", *Research Papers in Linguistic*, 1, 39-58.
- Aparici, M. (1997): *L'adquisició de les oracions compostes en les llengües catalana i castellana*, Bartzelonako Unibertsitatea, eskuizkribua, Bartzelona.
- Aparici, M., Capdevila, M., Serrat, E. & Serra, M. (1996): "Adquisición y desarrollo de la sintaxis: la oración compuesta", in M. Pérez Pereira (arg.) *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera y gallego*, Universidade de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela, 207-216.
- (agertzeko): "Acquisition of complex sentences in Spanish and Catalan speaking children", in K. Nelson, A. Aksu-Koc & C. Jhonson (arg.) *Children's Language, Volume 10: Language in Use, Narratives and Interactions*, Lawrence Erlbaum Associates.
- Barreña, A. (1994a): "Haur euskaldun elebakar baten mendeko perpausen jabe-kuntza-garapena", *Tantak*, 12, 45-73.
- (1994b): "Deklinabidearen jabe-kuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan", *Euskera* 39, 505-536.
- (1995): *Gramatikaren jabe-kuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- (1999): "La adquisición de estructuras subordinadas por un niño bilingüe vasco-español", in *III Congreso de Lingüística General*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Bloom, L. (1991): *Language development from two to three*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Bloom, L., Lahey, M., Hood, L., Lifter, K. & Fiess, K. (1980): "Complex sentence: acquisition of syntactic connectives and the semantic relations they encode", *Journal of Child Language*, 7, 235-261.
- Elosegi, K. (1998): *Kasu eta preposizioen jabe-kuntza-garapena haur elebidun batengan*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Goenaga, P. (1998): "Euskal Gramatika", in *Lur Entziklopedia*, Lur, Donostia.
- Hernández Pina, F. (1984): *Teorías psicolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*, Siglo XXI, Madrid.
- Mahlau, A. (1994): "El proyecto BUSDE: Corpus y metodología", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Vervuert-Iberoamericana, Frankfurt an Main.
- Zubiri, J. J. (1997) *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabe-kuntza eta garapena hiru urte arte. Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Doktorego tesia, Gasteiz.